BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

3115

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 11koa, Ingurumeneko sailburuordearena, altzairua hotzean trefilatzeko plantarako ingurumen-baimen bateratua ematen duena, Vitoria-Gasteizeko udalerrian (Araba) eta Trefilería Filozin, S.A. enpresak sustatua.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Iñigo Quincoces jaunak, Trefilería Filozin, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako orduko Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumen-baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Vitoria-Gasteizeko udalerrian (Araba) altzairua hotzean trefilatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera honako dokumentazio tekniko hau aurkeztu zuen: Ingurumen-baimen bateraturako eskaeraren memoria.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean Trefilería Filozin, S.A. enpresak, besteak beste, jarduerarako eta irekierarako baimenak zituen, Vitoria-Gasteizeko Udalak emandakoak.

2007ko martxoaren 20an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkien, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko izapidea agindu zezan. Zehazki, Vitoria-Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien kontsulta.

2007ko apirilaren 4an, Ingurumen Organoak agiri gehigarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta agiri horiek 2007ko urriaren 30ean aurkeztu ziren.

Ondoren, 2008ko urtarrilaren 15ean, proiektuaren eta Vitoria-Gasteizeko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko udal-txostenerako eskabidea igorri zen.

Ingurumeneko sailburuordeak 2008ko ekainaren 30ean emandako Ebazpenaren bidez jendaurrean jarri zen, 30 egun baliodunen epean, Trefilería Filozin, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko irailaren 19an. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurreko informazioaren izapidea bete ondoren, alegaziorik ez zela aurkeztu egiaztatu zen.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urriaren 29an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Vitoria-Gasteizeko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Ingurumen-baimen bateratua emateko espedientea ebazteko agiriak osatze aldera, 2008ko abenduaren 11n Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak berriz ere agiri osagarriak txertatzeko eskatu zuen, eta espedientea 2008ko abenduaren 29an osatu zen.

2009ko otsailaren 20an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Trefilería Filozin, S.A. enpresaren esku utzi zen, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta. Ez zen horren inguruko jakinarazpenik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila handia helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren, uztailaren 1eko Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duenaren, 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak, zehazki,16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen-baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, zehazki, hura aplika daitekeen instalazio guztietan araua betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko karga administratiboak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Trefilería Filozin, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena; saneamendu-sare orokorrera isurketak egiteko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta horri aurre hartzeari dagozkionak.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen-baimen bateratua emateko prozedurak ordeztu egiten du Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura; ez du ordezkatzen, ordea, udal agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua udal agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada, baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei dagokienez ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu eragotziko: autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Trefilería Filozin, S.A. enpresari dagokion ingurumen-baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balio handienak, eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira: teknika erabilgarri onenen erabilera eta bai aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak eta neurriak ere. Zehazki, Europako Batzordearen 2006ko abuztuko galdaketaren sektorerako BREF agiriaren (Reference Document on Best Available Techniques for the Surface Treatment of Metals and Plastics) edukia hartu da kontuan. Horrez gain, araudi sektorialei dagokienez, kasu honetan aplikatzekoa da, batez ere, apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretua, hau da, Ontzien eta ontzi-hondakinen apirilaren 24ko 11/1997 Legea garatu eta gauzatzeko Erregelamendua onartzen duena.

Espedienteko txostenak aztertu eta proiektuaren osotasunaren ingurumen-ebaluazioa egin ondoren, ebazpen-proposamena sinatu zen, zeinetan jaso egin baitziren Trefilería Filozin, S.A. enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumen-baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo arauak ikusi dira: Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak 2009ko otsailaren 20an emandako Ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurumena babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzekoa diren gainerako arauak,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Trefilería Filozin, SAri beherago zehaztutako baimena ematea –helbide soziala hauxe du: Vitoria-Gasteizko Betoñoko Industria Poligoko Miravallez kaleko 4. zk; eta IFK hauxe: A-01031863–: Ingurumen-baimen bateratua, helbide horretako instalazioetan, hotzean altzairua trefilatzeko, betiere ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.6 kategorian sartuta dago, «Metalen eta plastikozko materialen azala prozedura elektrolitiko edo kimiko bidez tratatzeko instalazioak, tratamendurako erabilitako kubeten edo lerro osoen bolumena 30 m^3-tik gorakoa denean» izenekoan.

Trefilería Filozin, S.A. enpresa, Vitoria-Gasteizko udalerriko Miravalles kalearen 4. zenbakian (Betoñoko industrialdean) dago kokatuta.

Jarduera nagusia, altzairua hotzean trefilatzearena da. Honako eragiketak burutzen dira Trefilería Filozin, S.A. enpresaren ekoizpenean:

Desugertze kimikoa: giro-tenperaturan dauden azido klorhidrikoko (%18-% 20) hiru upeletan aplikatzen da trefilatzeko materialen desugertzea. Desoxidatutako gainazala azidoak kaltetzea ekiditeko, agente inhibitzaileak erabiltzen dira.

– Fosfatatzea: hiru upel ditu (xaboia, fosfatatua, karea), eta berauetan aplikatzen da trefilatzeko materialen gaineko fosfatatze-tratamendua. Fosfatatzeko upelean 70 º C-ko tenperaturan lan egiten da, eta karearen upelean hidroxido kaltzikoa 85 ºC-ko tenperaturan dago.

– Ikuztea. Garbitze-lerroak 3 upel ditu.

– Trefilatua: azkenik, eta bezeroak eskatutakoaren arabera, eskura diren trefilatze-makinetan akabera ezberdinak egiten dira.

Desugertzeko lerroak egunean 165 tona tratatzeko gaitasuna du. Trefilaketako atalari dagokionez, berriz, honako gaitasuna du makina bakoitzak:

– M1 makina: 30 tona eguneko.

– M2 makina: 24 tona eguneko.

– M3 makina: 24 tona eguneko.

– M4 makina: 13,5 tona eguneko.

– M5 makina: 13,5 tona eguneko.

– M6 makina: 3,6 tona eguneko.

– M8 makina: 8 tona eguneko.

– M10 makina: 52,5 tona eguneko.

– M11 makina: 37,5 tona eguneko.

Bi motako energia erabiltzen du jarduerak:

– Energia elektrikoa. Makinetan, araztegian eta instalazio osoaren argiztapenean 829.004 kW/h kontsumitzen da.

– Gas naturala: galdaretako erregai gisa erabiltzen da. Urteko kontsumoa 53.778 m^3-koa da.

Gasolioa: soilik orgatila jasotzaileen erregai gisa erabiltzen da. Urtean 11,084 m^3 kontsumitzen da.

Trefilería Filozin, S.A. enpresak atmosferara isurtzen duten 6 foku ditu: desugertzearen berokuntza-bainuetako prozesuei lotuta dagoen lurrun-galdararen erregailua, eta fosfatatzeko lerroetatiko ateragailuen 5 fokuak (ez-sistematikoak izan daitezke).

Hauek dira Trefilería Filozin, S.A. enpresan sortzen diren hondakin arriskutsuak: desugertzeko azido agortua, fosfatatzeko lohiak, kare-lohiak, esterato xaboia, araztegiko opilak, olio erabilia, bustitako solidoak, kutsatutako plastikozko ontzi hutsak, disolbatzaileak eta fluoreszenteak. Sortu diren hondakin ez-arriskutsuak, berriz, txatarra, kartoia eta papera, zura eta plastikoak dira.

Jatorri industrialeko isurketak sortzen dira Trefilería Filozin, S.A. enpresan, arazketatik, hozketatik eta komunetatik datozenak. Amvisak kudeatutako ur-kolektorera bideratzen dira bi isurketok.

Trefilería Filozin, S.A.k aurkeztutako proiektuak honako neurriak –Hobekuntza Tekniko Erabilgarriak (HTE) kontsidera daitezkeenak– jasotzen ditu: xurgapen eta aireberritze jarraikirako sistema, ezarritako arriskuen prebentziorako sistema, isuritako uren etengabeko kontrola, prozesuko upeletako kontzentrazioen kontrol iraunkorra, ur-kontsumoaren erregistroa, uraren zirkulazioa zirkuitu itxian, upelen lerroaren inguruan segurtasun-perimetroa instalatzea.

Bigarrena.– Vitoria-Gasteizko udalerrian kokatutako instalazioetan, altzairua hotzean trefilatzeko jarduera gauzatzeko, Trefilería Filozin, S.A. enpresari honako baldintzak eta betekizunak ezartzea:

A.) Trefilería Filozin, S.A. enpresak, administrazioarekiko harremanen arduradunari dagokionez, honako datu hauek igorriko beharko dizkio Ingurumen Sailburuordetzari: izen-abizenak, helbidea eta titulazioa.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetzan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Trefilería Filozin, S.A. enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian duen planta ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte gaindituko ebazpen honetan ezarritako muga-balioak.

Era berean, prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokietan zehar kanpora bideratuko da; behar denean, gai kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak ez daitezen izan arriskutsuak giza osasunerako eta segurtasun publikorako. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, zehazki, efluenteen tenperatura- eta konposizioaren ondoriozko aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien laburtuko dira: instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Trefilería Filozin, S.A. enpresak Vitoria-Gasteizko udalerrian duen instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuak:

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Izena	Altuera (m)	Barruko diametroa (m)	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	1000447-01	Lurrun-galdararen erregailua	5	0,35	C	529349	4746385

* Fosfatatzeko lerroko ateragailuei lotuta dauden 5 fokuak sistematikoak diren ala ez zehazteko, beheko informazioa eman beharko da:

1) Izena.

2) UTM koordenatuak.

3) Fokuei lotutako prozesua(k), foku bakoitzean zein upeletik xurgatzen den, edukierak, orduko, eguneko, urteko upel bakoitzaren kontsumoak produktu bakoitzeko.

4) Airearen kalitateari eta atmosferaren babesari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legean xedatzen denaren araberako katalogazioa.

5) Emaria (gehienekoa eta batez bestekoa), tenperatura eta fluxuaren abiadura, bai eta isuritako kutsatzaileen ezaugarriak eta kopurua ere. Jardueratik eratorritako isurpen bakoitzaren emari-estimazioa eta konposizioa, arloan indarrean dagoen araudia betetzen dela egiaztatu ahal izateko moduko unitateetan adierazi beharko dira.

6) Erabilitako laginketa- eta analisi-metodoa, maiztasuna eta lortutako emaitzen fidagarritasun-maila adieraziz egindako karakterizazioak, kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek, atmosfera kutsa dezakeen instalazioari buruz egindako ikuskatze-txostenaren bidez.

7) Huste-sistemen ezaugarriak:

– Zorutik tximiniaren ahorainoko altura.

– Tximiniaren barruko diametroa.

– Laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapena eta ezaugarriak, gas-fluxuek laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein perturbazio izan dezakeen gunera bitarteko distantziak adieraziz, hau da, L1 eta L2 parametroak, Industria-jatorriko kutsadura atmosferikoren prebentzioari eta leheneratzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean aipatutakoak. Neurketa-puntuetara sartzeko plataformen ezaugarriak ere jasoko dira.

8) Foku bakoitza eta guztiak zehazten dituen instalazioaren planoa.

B.1.3.– Isurketako muga-balioak.

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Izena	Substantziak	Isurketako muga-balioak
1	1000447-01	Lurrun-galdarako erregailua	Nitrogeno oxidoak (NO_X)	300 ppm
			Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm

* Gainerako bost isurtze-fokuentzat kutsatzaileak eta mugak ezarriko dira, horiei buruzko informazioa aztertu ondoren.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa, eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte emisioen muga-balioak gainditu behar arauzko aldizkako ikuskapenetan (hiru neurketa, bakoitza ordubetekoa gutxienez), zortzi orduren barruan neurtuta. Neurketa-tolerantzia hauxe onartuko da: kasuetarik % 25ean, % 40tik gora egiten ez duen zenbatekoa. Tolerantzia hori gaindituz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an, muga-balioa gehienez % 25 gainditzea onartuko da. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan isurketa-mailak ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen gorakoak.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistemak.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Aginduan, Industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte tximiniek; eta, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak izango dituzte. Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuren norabidean eta kontrakoan eta neurketa-puntuaren aurretik, langiketa-puntutik gas-fluxuaren edozein perturbaziorako distantziak egokitu egin beharko dira, 1976ko urriaren 18ko Aginduko III. eranskinean xedatutakoari (L1 eta L2 parametroak). L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliozkotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.2.– Vitoria-Gasteizeko saneamendu-sareko kolektorera isurtzeari buruzko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera-mota nagusia: hotzeko trefilaketa.

Jarduera-taldea: 2.

Mota-taldea-EJSN: 1/-2/-27340.

Isurketa-gunea	Hondakin-ur mota	Ingurune hartzailea	Arro hidrografikoa	Ingurune hartzailearen kategoria
PV-1	Industria-urak (araztegia), sanitarioak eta euri-urak	Amvisaren ur-kolektorea	-	-
PV-2	Industria-urak (hozketa), euri-urak eta ur sanitarioak	Amvisaren ur-kolektorea	-	-

Sustatzaileak bi isurketa-puntuen UTM koordenatuak adierazi behar ditu.

B.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

a) PV-1 eta PV-2 isurketa: industriako hondakin-urak (araztegia, hozketa).

Orduko puntako emaria	2,37 m^3
Eguneko gehienezko bolumena	56,95 m^3
Urteko gehienezko bolumena	12.528 m^3

B.2.3.– Isurketaren muga-balioak.

Vitoria-Gasteizko Udal Urak saneamendu-sarera egiten diren isurketen kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak ondorengo zerrendan ageri direnak izango dira soilik, bakoitzarentzat ezarritako gehienezko mugekin:

a) PV-1 isurketa: industria-urak (araztegia), sanitarioak eta euri-urak.

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
Cd	0,2 mg/l
Cu	2 mg/l
Ni	2 mg/l
Zn	2 mg/l

b) PV-2 isurketa: industria-urak (hozketa), euri-urak eta ur sanitarioak.

Parametroak	Isurketaren muga-balioak
pH	5,5-9,5
DQO	1.000 mg O_2/l
Fosfatoak (P guztira)	15 mg/l
AOX	2 mg/l
Hondar-kloro askea	2,5 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Hozte-zirkuituak husteko protokoloa, zeina arauketa egoki baten bitartez zehaztu eta bermatu behar baita, hauxe izango da:

1) Husteko gutxieneko denbora: 72 h.

2) Hondar-kloro askea, erreaktiboak gehituz edo beharrezko denboran pausagune bidez, etab. ezabatzea, eta zuzeneko «in situ» analisi-kontrola, isuri aurretik klororik ez dagoela bermatzeko.

3) Putzuaren hondoan metatutako lohiak kendu eta hustea, hori isurtzea derrigorrez saihestu behar baita.

B.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Sustatzaileak aurkezturiko agiriak oinarri hartuta, hondakin-uren arazketa-instalazioek honako jarduera hauek barne hartuko dituzte funtsean:

– Isurketak biltzeko putzua.

– Neutralizazio-modulua.

– Oxidazio-modulua.

– Malutapen-modulua.

– Dekantazio-modulua.

– Lohien lodigarria.

– Prentsa-iragazki bidezko arazketa.

Gainazalean PVCko kutxeta du instalazioak, 500 × 400 mm-koa. Kutxeta horretan isurketen kontrola egiten da, eta pH-a neurtzeko tresna osoa du: neurketa-elektrodoa, zunda portaelektrolitoa, adierazgailu digitala eta etengabeko papereko erregistratzailea. pH ekipoak alarma bat aktibatuko du, azken isurketak ez baditu baldintza egokiak betetzen.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Trefilería Filozin, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketako instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik; behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

B.3.– Plantan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira, euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Berariaz debekatuta dago sortutako mota desberdinetako hondakinak elkarren artean edo beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea; jatorrian bereizi behar dira haiek, eta behar diren biltze- eta biltegiratze-bitartekoak jarri behar dira haiek ez daitezen nahasi.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatzegune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik haiek balioztatzea bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetiko batzuen aurretik.

Era berean, hondakin jakin batzuk tratatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Hondakin jakin batzuk zabortegian ezabatzea aurreikusten bada, horien karakterizazioa Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideak.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Vitoria-Gasteizeko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

● 1. prozesua: «Desugerketa».

○ 1. hondakina: «Azido agortua».

– Identifikazioa: B01487578/13623/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q08//R13//L27//C23//H08//A231(2)//B3137.

– EHZ: 110105.

– Urtean sortutako kantitatea: 661.740 litro.

Azido klorhidrikoko bainuak berritzean sortzen da, eta % 33an agortutako azido klorhidrikoaren disoluzioa da, burdinez kargatua.

Horretarako berariazko upelean biltzen da, azidoaren aurkako estaldura berezia duen kubeta iragazgaitzean, kudeatzaile baimenduak jaso arte. Zirkuitu itxian tokiz aldatzen da bainu agortua.

○ 2. hondakina: «Lohi fosfatatuak».

– Identifikazioa: A01031863/13623/1/2.

– Hondakinaren kodea: Q08//D09//P27//C23//H05//A231(2)//B3137.

– EHZ: 110108.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.832 kilogramo.

Fosfatatze-bainua erabiltzearen ondorioz sortzen da. Bainuan sortzen den hauspeakina kendu egin behar da.

Kudeatzaile baimenduak emandako berariazko edukiontzian biltzen da, honek jaso arte. Edukiontzi etiketatuak dira.

○ 3. hondakina: «Karezko lohiak».

– Identifikazioa: A01031863/13623/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q08//D09//S21//C24//H05//A231(2)//B3137.

– EHZ: 060205.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.888 kilogramo.

Kare-bainua erabiltzearen ondorioz sortzen da. Bainuan sortzen den hauspeakina kendu egin behar da.

Kudeatzaile baimenduak emandako berariazko edukiontzian biltzen da, honek jaso arte. Edukiontzi etiketatuak dira.

● 2. prozesua: «Trefilaketa».

○ 1. hondakina: «Esterako xaboia».

– Identifikazioa: A01031863/13623/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q08//R09//S19//C24//H05//A231(2)//B3144.

– EHZ: 120122.

– Urtean sortutako kantitatea: 8.380 kilogramo.

Trefilaketa-prozesuan sortzen da, alanbrea trefilatzeko makinetatik pasatzean; prozesu honetan sortutako xaboi-hondarrak dira.

● 3. prozesua: «Hondakin-uren tratamendua».

○ 1. hondakina: «Araztegiko opilak».

– Identifikazioa: A01031863/13623/3/1.

– Hondakinaren kodea: Q08//D09//S27//C24//H05//A231(2)//B0006.

– EHZ: 190813.

– Urtean sortutako kantitatea: 70.720 kilogramo.

Hondakin-urak arazteko jardueran sortzen da.

Kudeatzaile baimenduak emandako berariazko edukiontzian biltzen da, honek jaso arte. Edukiontzi etiketatuak dira.

● 4. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Erabilitako olioa».

– Identifikazioa: A01031863/13623/4/1.

– Hondakinaren kodea: Q07//R01//L08//C51//H05/06//A231(2)//B0019.

– EHZ: 130113.

– Urtean sortutako kantitatea: 1.560 kilogramo.

Bidoietan biltzen dira.

○ 2. hondakina: «Disolbatzaile organiko ez-halogenatua».

– Identifikazioa: A01031863/13623/4/2.

– Hondakinaren kodea: Q08//R13//L05//C41//H03b/05//A231(2)//B0019.

– EHZ: 140603.

– Urtean sortutako kantitatea: 35 kilogramo.

Berariazko biltegian biltzen da.

○ 3. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A01031863/13623/4/3.

– Hondakinaren kodea: Q14//R04//S40//C06/18//H06/14//A231(2)//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: unekoa.

Kartoizko kutxetan biltzen da.

○ 4. hondakina: «Xurgatzaileak, zapiak eta iragazkiak».

– Identifikazioa: A01031863/13623/4/4.

– Hondakinaren kodea: Q05//D15//S40//C41/43/51//H5//A231(2)//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 kilogramo.

Bidoietan biltzen dira.

○ 5. hondakina: «Ekipo informatikoak».

– Identifikazioa: A01031863/13623/4/5.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S40//C6/11/18//H6/14//A231(2)//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: unekoa.

Sortu eta berehala biltzen dira.

○ 6. hondakina: «Erabilitako plastikozko ontziak».

– Identifikazioa: A01031863/13623/4/6.

– Hondakinaren kodea: Q05//R13//S36//C41/51//H05//A231(2)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 520 kilogramo.

Paletetan biltzen dira.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu zezaketen kasuetan.

b) 1. prozesuan (desugertzea) sortutako hondakinak, sortzen diren instalazioko gordailutik jaso behar dira zuzenean, aurretik ontziratu eta biltegiratu gabe, eta baimendutako kudeatzaileari eman behar zaizkio.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek honako segurtasun-neurriak izan beharko dituzte: hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritakoak, eta, bestalde, itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta, etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du, eta, halaber, eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izan beharko du.

e) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, beste hondakinen kudeatzaile batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, justifikatu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen egokitu egiten zaiela honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Trefilería Filozin, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da ezen, baimendutako kudeatzailearen instalazioetara hondakin arriskutsuak eramateko garraioak honako betekizunak betetzen dituela: halako merkantziak garraiatzeari buruzko indarreango legerian eskatutakoak.

i) Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak, haien artean hodi fluoreszenteak, Tresna elektriko zein elektronikoei eta haien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

j) Trefilería Filozin, S.A. enpresak PCB eduki ditzaketen gailuak dituenez, kudeaketa egokia izan dadin, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen 1999ko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuaren baldintzak eta errege dekretu hori aldatzen duen 2006ko otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian, ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Trefilería Filozin, S.A.enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

l) Trefilería Filozin, S.A.enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilabeterik behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

n) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Trefilería Filozin, S.A. enpresak neurri zuzentzaileak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetzan, gutxienez lau urterik behin.

o) Aurreko f), g) (kudeatzaileak EAEn daudenean), l) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

p) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Trefilería Filozin, S.A. enpresak, Amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak: martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak deklaratutako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen	Zenbatetsitako ekoizpena (Tn)
Txatarra	120101	Zerbitzu orokorrak	240,336
Papera	191201	Zerbitzu orokorrak	0,1
Kartoia	191201	Zerbitzu orokorrak	0,285
Zura	170201	Zerbitzu orokorrak	5,22
Plastikoak	170203	Zerbitzu orokorrak	0,839

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio –hornitzaileari–, erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati emango zaizkio.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak ebakuatu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta dituela. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipio orokorrak direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da ezen proposatutako kudeaketa-modua egokitu egiten zaiela ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei. Trefilería Filozin, S.A. enpresak artxibategian erregistratu eta gorde beharko ditu onarpen-agiriak edo horien agiri ofizial baliokideak, aginduzkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, Hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek jasoko dituena: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodoak eta tokiak, hondakinen sorrera- eta lagapen-datak, bilketaren maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c eta d (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez, lurzoruaren Aurretiazko Egoera Txostena aurkeztu beharko du Trefilería Filozin, S.A. enpresak, ondorioen atala ere barne duela.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak jarriko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa, sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta honako atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Trefilería Filozin, S.A. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	1000447-01	Lurrun-galdararen erregailua	NO_x CO	5 urte

* Gainerako bost isurtze-fokuentzat kutsatzaile eta kontrolerako maiztasunak ezarriko dira, horiei buruzko informazioa aztertu ondoren.

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoari egokitu zaizkio. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketak, aldian behingo ikuskatzeak, matxurarengatiko geldialdiak, egiaztapenak, gorabehera oro, etab. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak		Neurketa-parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
		X	Y			
PV-1	Industria-urak (araztegia), sanitarioak eta euri-urak	529.314	4.746.371	pH, emaria	Etengabea	Autokontrola
				pH, solido esekiak, solido jalkigarriak, OEK, DBO_5, Al, As, Ba, B, Cd, Cr(VI), Cr guztizkoa, Fe, Mn, Ni, Hg, Pb, Se, Sn, Cu, Zn	Hiru hilerik behin	kanpokoa
2. IP	Industria-urak (hozketa-urak), euri-urak eta ur sanitarioak	529.296	4.746.336	pH, OEK, fosfatoak (P guztizkoa), AOX, hondakin-kloro askea	Hiru hilean behin	Kanpokoa

b) Nahitaezkoa da ur tratatua neurtzeko pH-neurgailu jarraiki bat eta isuritako uren emari-neurgailu bat izatea, zehazki, neurketaren tokiko adierazlea, beharrezko bi puntutan alarmak, eta datu historikoak gordetzeko eta kudeatzeko sistema informatizatua dituztenak. Horiek Administrazioaren esku egon beharko dute gainera.

c) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek edo saneamendu-sarearen kudeaketa-arduradun den erakundeak egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak kontuan hartuta gauzatuko da. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua. Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira beti.

e) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, baldin eta B.2.3 atalean ageri diren parametro guztiek egiaztatzen badituzte ezarritako mugak.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Materialen kontsumoa/urteko ekoizpena	Tn/ekoiztutako t
Isurketen sorrera/urteko ekoizpena	Isuritako kg/ekoiztutako t
Ur industrialaren isurketa/ekoizpena	Isurketa m^3 ur/produzitutako t
Sortutako txatarra/ekoizpena	T txatarra / produzitutako t
Sortutako txatarra/ekoizpena	Kg sortutako hondakin arriskutsuak / produzitutako t

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur-zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urterik behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketa-proposamen zehatz bat landu beharko du, eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den Ingurumena Zaintzeko Programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Isuritako uraren kalitatearen kontrolari buruzko emaitzak, gainera, hiru hilerik behin bidaliko dira Ingurumen Sailburuordetzara.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina prestatu beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, zertarako-eta ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Planta gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta, dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduerari uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27340 epigrafea), eta kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela eta, Trefilería Filozin, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

D.1 atalean jasotzen den proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Isuri-ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen isuri-ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, fabrikako kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak. Era berean, kutsadura atmosferikoaren prebentzio- eta zuzenketa-sistemak (arazketa, minimizazioa, eta abar) egoera onean daudela bermatuko duten neurriak hartuko dira.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Besteak beste, ondokoak maeniatuaz lurzorua eta ura kutsa daitezke: desugerketako azidoak, fosfatatzaileak eta gasolioak. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen partzelen azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

f) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratze-instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztuko dira eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

g) Larrialdirik gertatuz gero, berehala eta eraginkortasunez esku hartzeko beharrezkoak diren material guztiak edukiko dira, kantitate nahikoan: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako ingurunean isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen isuriak ez dira tratamenduko plantara eramango.

i) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako ura tratamendu-lerrora bideratuko da.

j) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira.

k) Arazketa-prozesuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka atera egingo dira, instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez duten andeletan biltegiratuko dira.

l) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoa kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

m) Instalazioek lohiak tratatzeko sistema izanez gero, xukatutako ura arazketa-instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da bertan tratatu dadin.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

o) Arazketarako instalazioak behar bezala erabiltzeko eta ustekabeko isurketak ez gertatzeko hartu diren segurtasun-neurriak indarrean mantentzeko, behar diren baliabideak izan beharko ditu titularrak. Arazketa-prozesuko zundak bikoiztu egin beharko dira, irakurketetan erroreak ekiditeko. Eta ordezko piezak izango dira erreaktiboak dosifikatzeko punpen fabrikan.

p) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, azal-tratamenduko hausturak edo jarioak, araztegiak edo B.1.2 atalean adierazitako erauzketa-fokuek gaizki funtzionatzea), enpresak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

q) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehetasunezkoa bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– Gertakari-mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

r) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztuko dira eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle etan zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldatu egin daitezke, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Trefilería Filozin, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, zertarako-eta E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko; betiere, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-L03 Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www-eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak, xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu– eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. paragrafoari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumen-baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: A (Administrazioarekin harremanetan izango den pertsona arduradunari buruzko datuak); B.1.2 (Fosfatatuaren lerroko ateragailuei buruz eskatutako informazioa); B.2.1 (Isurketa-puntuen koordenatuak); B.2.4 (Kontrol-kutxeta); B.3.1.f) eta B.3.2.c) (Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak onartzeko dokumentuak); B.3.1.m) eta B.3.2.e) (Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak erregistratzeko ereduak); B.4 (Lurzoruari buruzko Aurretiazko Egoera Txosten osoa); C.1 (Isuri atmosferikoak kontrolatzea); C.2.b) (Isurketak etengabe kontrolatzeko neurketa-ekipoak izatearen ebidentziak); C.6 (Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina); D.1 (mantentze-lanetan botako diren kutsagarrien eta sortuko diren hondakinen balioespena); D.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.f) (Produktu kimikoak biltegiratzeko ziurtapenak); D.3.g) (Larrialdi egoeretarako eskuragarri dauden materialen zerrenda); D.3.h) (kubetak husteko eragiketen protokoloa); D.3.r) (Suteen aurkako babesaren ziurtagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari eskumendun batek egina.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, Ingurumen Sailburuordetzak ingurumen-baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da, eta, horren bitartez, ingurumen-baimen bateratua eraginkorra dela aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da, eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumen-baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuetan.

Seigarrena.– Trefilería Filozin, S.A. enpresak ebazpen honen xede den alanbrea trefilatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ezen betetzen direla ebazpen honetako hirugarren atalean, ingurumen-baimen bateratuak ondorioak izateko, ezarritako baldintzak; interesdunak, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Trefilería Filozin, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Trefilería Filozin, S.A. enpresari, Vitoria-Gasteizeko Udalari, ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita; hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2014ko martxoaren 11.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.